


UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Ekimen sozio-kulturalak (2018/10/09) Hurrengo saioa: 2018/10/23	“Herria bizitza” indartzeko jarduerentzat diru -laguntzak	Diru laguntza eskatzeko eskaera fitxaren gaineko lehen bozetoa aurkeztu da eta bertan aurrean burutu diren eskaintzak berritzaileak “lagunduak” izan daitezkeela pentsatu dugu.	Denon artean eskaera landu.
	Auzolana	Burutu daitezkeen lanen gaineko hausnarketa egin eta lan hauek multzoka banatu dira. Lan bakoitzeko beharko diren kide kopuru minimoa zehaztu eta beharrezkoa den materialaren lehen balorazioa egin da.	Lantaldeak sortu eta talde buruak izendatu.

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2018/10/16) Hurrengo saioa: 2018/10/30	Auzolana	<ul style="list-style-type: none">- PANELAK: Jarriko diren paneletako edukia aztertu dugu. Panel bakoitzak ibilbideetako trazatua (mapan) eta herriko gune interesgarrien argazki eta informazio orokorraz gain, gune bakoitzeko berariazko atal bat ere badu, plano eta guzti, bi paneletan izan ezik (Altzigarragakoan ibilbideak bakarrik egongo dira eta Itsasoko paneletako batean, herriko gune interesgarrien informazioa soilik). Markatuta dauden ibilbideak, kolorez desberdinduta, hauek dira: Itsaso-Kizkitza-Mandubia-Urteaga-Itsaso; Itsaso-San Lorentzo; Itsaso-Alegi-Itsaso; Alegi-Uribar (bide berdea). Bide bakoitzak duen luzera, desnibela eta behar duen denbora ere adierazita dago, QR-arekin batera (honek informazioa gaztelaniaz eta ingelesez izateko aukera ematen digu).- Panel marko batzuk birkokatu egingo dira: Alegiakoa Zozabarron jarriko da, Mandubiakoa Alzigarragan eta Itsasokoa Urteagara eramango da. San Lorentzokoa eta Kizkitzakoa mantentzen dira. Itsasoko biak, Alegiakoa eta Mandubiko Bentakoa berriak jarriko dira.- IBILBIDEAK: Ibilbide bakoitza kolore batekin identifikatu dagoenez, ibilbidean jarriko diren logoak ere kolore berekoak izango dira.- MATERIALA: Materiala eskatu/erosi da: markoak, sarea, hesolak,- Lan taldeak sortu dira eta bakoitzean arduradun bat izendatu da.	<ul style="list-style-type: none">- Eskatutako materiala eskuratu.- Lan taldeetako arduradunekin aldez aurretik hitz egin, lan gunea aipatu eta zereginak adierazteko.
	Jubilatuaren eguna	Jakinarazpena prestatu da. Bazkarira joateko eragozpenak dituztenen zerrenda osatu da eta huentzat loteak egiteko aurreikuspenak egin ditugu. Ospakizunaren osagarri bezala ikuskizunen bat antolatzeke nahia agertu da.	Dantza/musika/bertsok... antolatu



	Omenaldi berezia	100 urte egingo dituen Zabalegiko Martin Etxeberriari omenaldi berezia egin nahi zaio.	Ideia desberdinak proposatu
--	------------------	--	-----------------------------

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Azpiegitura eta ingurumena (2018/10/17) Hurrengo saioa: 2018/10/31	Bide publikoen erabileragatik 2019rako tasa	Kamioiko eta 500 metroko 2018ko tasa 10,34 € takoa da. Bide horretan parte dutenak eta bide garbiketan ardura hartzen dutenek %10a ordaintzen dute. Kamioiek sortzen duten kaltea konpontzeko ez da nahikoa izaten, eta tasa hau igo beharra ikusten da.	2019ko tasa berria erabaki
	Alegia-Uribar asfaltatzeko aurrelanak	Bide berdea asfaltatu aurretik, bidea libre utzi behar denez, partzela guztien sarrerak aurreikusi behar dira. Partzela jabeen artean adostasunera iristeko alternatibak aurreikusi dira.	Jabeekin elkartu eta aukerak aztertu
	S Lorentzo aldeko ur-manantiala	S Lorentzora ura eramateko pulgada eta erdiko hodia beharko da eta amaieran hodi estuagoa eta iturri aurretik depresorea, ur korrientea apur bat izan dezan. Segidan iturritik behi-askara bideratuko da.	Non desaguatu erabaki. Muttegi azaroan burutu lezake lana
	Frontoiko argiaren kaxa	Txanpon kaxa apurtu eta lapurtua izan zen, eta Udal aseguruaren bidez jarri da berria	Txanpon kaxak duen lapurreta arriskuagatik, mugikorreko aplikazioren batekin edo zer beste sistema jarri litekeen aztertu